

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENDAROKETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, "Etxamenda" izeneko VI-10200 esparruko ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, "Etxamenda" izeneko VI-10200 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Berrikao, Etxabarri Dibiña eta Mendarozketako jurisdikzioko lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Mendarozketako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria urteko lau mila hirurehun eta hogeita bost (4.325 €) euro da, BEZa barne, eta gehiago eskainita hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen prezioaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren aprobetxamendu zinegetikorako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

"Etxamenda" izeneko VI-10200 esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Mendarozketa, 2019ko uztailaren 2a

Lehendakaria

NEKANE SÁENZ DE BURUAGA OLEAGA